

# Balkoitik begira

Balkoiei buruz arituko gara jarduera honetan. Gai horri buruzko testu bat aztertuko dugu eta bukaeran kontatuko dugu zer ikusten dugun gure etxeko balkoitik.

Ariketa hauek egin ditzakezu:

- Zertarako erabiltzen dira balkoiak? Idatzi zerrenda batean testuak kontatzen duenarekin.
- Testuan ageri diren esaldi-zati batzuk esan zure hitzekin.
- Grabatu bideo bat etxeko balkoitik zer ikusten duzun kontatuz, eta bidali taldeko forora.



**Oharra:** Ikasgelan ez bazaudete, talde-jarduera hau egiten hasi aurretik, adostu irakaslearekin batera zuen arteko komunikazio-tresna: foroa, posta elektronikoa, WhatsApp, Teams, Hangout, Google Duo, Skype...



## 1. Eskerrak balkoia daukagun!

ONDOKO TESTUAK KONTATZEN DU ZERTARAKO DIREN BALKOIAK. IRAKURRI ETA OSATU ZERRENDA.

### Eskerrak balkoia daukagun!

Osasun-alarman gaude koronabirusaren ondorioz. Etxetik atera gabe daude pertsona asko. Egoera honetan protagonismo berezia hartu du etxeetako toki jakin batek: balkoiak.

Egun hauetan jende asko etxean sartuta dago ia egun osoan, eta balkoietara ateratzen da komunikatzeko: osasun-arloko jendea txalotzeko, bizilagunekin abesteko eta abar. Baina Euskal Herrian behintzat balkoiak aspalditik erabili izan dira ekintza askotarako. Hona hemen batzuk.

#### Festak eta beste

Aste Santuan saetak abesteko erabiltzen dira balkoiak; adibidez, oso ezagunak dira Bilboko Zazpi Kaleetakoak. Euskaraz ere abestu izan dute, Youtuben sartzea besterik ez dago adibideak aurkitzeko. 2020an ez euskaraz ez inola, bertan behera geratu baitira ospakizun guztiak.

Eta izango ote dira sanferminak? Espero baietz. Sarean sartzen bazarete, berehala aurkituko dituzue zezen-entzieroa ikusteko balkoiak, alokairuan. Aukera zabala da: gosariarekin, telebistarekin kazetarien iruzkinak entzuteko... Salneurriak ere denetarik.

Balkoiak festarekin lotzen dira. Herri batzuetan gaztetxoek balkoietan daudenei ura botatzeko eskatzen diete, batez ere uda-partean. Beste herri batzuetan lehiaketak egiten dituzte balkoiak edo/eta etxeak loreekin apaintzeko festetan: Bilbon, Pauen, Lesakan, Elgoibarren, Ordizian... Beste batzuetan, ordea, ez dago festa-beharrik balkoiak loreekin dotore edukitzeko urte osoan: Auritzen, Beran, Elizondon, Ainhoan...

Bertsolaritzan ere balkoiak badu bere tokiak. Balkoitik Balkoira izeneko ekimena Tolosan sortu zen 1802an, eta herri batean baino gehiagotan egiten da, Algortan adibidez. Balkoitik balkoira aritzen dira kantari. Bertsolari askok abestu dute balkoitik: Andoni Egaña, Alaia Martin, Maddalen Lujanbio... Eta ez da erraza, zeren bertso-saio arrunt batean elkarren ondoan daude, eta hor, ez. Oso adi egon behar da.

Balkoiak gauza arriskutsuetarako erabiltzen dituzten pertsonak ere badaude; adibidez, balconing egiten dutenak. Hoteleko balkoitik igerilekura salto egiteari esaten zaio balconing egitea. Altura handia dagoen lekuetatik salto egiten dute, eta zorixarreko istripuak gertatu izan dira, baita heriotzak ere.

**Protesta eta aldarrikapena**

Protesta egiteko ere erabiltzen dira balkoiak. Zerrenda luzea da baina bi protesta aipatuko ditugu. A8 autobidea hartzen duenak, bai Donostian, bai Bilbon, pankartak ikusiko ditu balkoietan autobideko zarataren aurka. Beste bat Abiadura Handiko Trenaren (AHT) ibilbidea pasatzen den herrietakoa da. Herri horietan, etxe askotako balkoietan, AHT gelditu leloa duten oihalak ikusiko ditugu.

Eta aldarrikapena ere non-nahi ageri da balkoietan. Horren adierazle garrantzitsuenetakoa da Aberri Egunean balkoian ikurrina jartzea, zer esanik ez Kataluniako Diadan senyera jartzea.

**Udaletxeko balkoia eta kirola**

Balkoiak beti erabili izan dira kirol-emaizak ospatzeko, baina gurean kirol bat badago balkoiarekin, batez ere udaletxeko balkoiarekin, zerikusi handia duena: arrauna. Arraunlariek irabazitako bandera astintzen dute herritarrei eskaintzeko: zirrargarria da oso!


**Eta zuk zertarako erabiltzen duzu balkoia?**

Noski, ez gara ari betikoaz: eguzkia hartzeko, trasteak gordetzeko... Ari gara, egun hauetako itxialdia dela-eta, ikusten ari garen kontuez: osasun-langileak eta beste hainbat alorreko jendea txalotzeko, bizilagunei bizitza eramangarriagoa egiteko musikaren bidez, gimnasia egiteko... Zer egin daiteke balkoian egun hauetan?

**Zertarako erabiltzen dira balkoiak? Zerrenda:**

*Iruñeko entzierroa ikusteko, .....*

Partekatu zerrenda taldeko ikaskide batzuekin, komunikatzeko duzuen lekuan (foroan, WhatsApp taldean...). Antzeko erantzunak idatzi dituzue? Bururatzen zaizue erabilera gehiago?



**2. Zure hitzekin kontatu**

Nola esango zenituzke testuan azpimarratutako zatiak beste hitz batzuekin?

Protagonismo berezia hartu du: .....

ekintza askotarako: .....

Balkoiak festarekin lotzen dira: .....

zoritarreko istripuak gertatu izan dira: .....

Protesta egiteko: *protestatzeko*

bizilagunei bizitza eramangarriagoa egiteko: .....

### 3. Balkoitik begira

Denbora asko pasatzen du egun hauetan jendeak balkoian. Atera zaitez zu ere balkoira eta:

- Grabatu bideo labur bat, eta kontatu bideoan zer ikusten duzun (eraikinak, natura...). Igo bideoa taldeko forora (Whatsapp-taldera...).
- Testu labur bat idatzi eta bertan kontatu lehen zertarako erabiltzen zenuen balkoia eta orain zertarako erabiltzen duzun. Kontatu, baita ere, auzoko jende berririk ezagutu duzun egun hauetan.



*Orain lehen baino gehiago erabiltzen dut balkoia. Eta auzoko pertsona gehiago ezagutzen ditut....*

Komentatu foroan taldekoen bideoak. Esan zein iruditu zaizuen ederrena, bereziena...

# ERANTZUNAK

## 1. Eskerrak balkoia daukagun!

**Zertarako erabiltzen dira balkoiak? Zerrenda:**

*Saetak, bertsoak... abesteko / igerilekura salto egiteko / Iruñeko entzierroak ikusteko / protesta egiteko / arraunlariak bandera ospatzeko*

## 2. Zure hitzekin kontatu

Protagonismo berezia hartu du: *protagonismo handia hartu du / protagonista bihurtu da*

ekintza askotarako: *Gauza askotarako / zeregin askotarako*

Balkoiak festarekin lotzen dira: *Balkoiak festarekin erlazionatzen dira*

zoritxarreko istripuak gertatu izan dira: *istripu larriak gertatu izan dira*

Protesta egiteko: *protestatzeko*

bizilagunei bizitza eramangarriagoa egiteko: *bizilagunak (bizilagunen bizitza) pozteko/alaitzeko*

